



DEBAko UDALA

2016SPLE0006  
6. BILERA: OHIKOA 2016-05-26

## Udalbatzarraren bilkura-akta

**Bilkura:** arauz deitutako ohizko Udalbatzarra

**Zenbatgarrena:** seigarrena

**Eguna:** 2016/05/26

**Hasiera-ordua:** 19:30

**Amaiera-ordua:** 20:00

**Onarpen-eguna:** 2016/06/30

### **Bertaratutako zinegotzi hautatuak:**

PEDRO M<sup>a</sup> BENGOETXEA LOIOLA

IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

AITOR SALEGI IRURETA

ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA

M<sup>a</sup> LUISA ALBIZU BEITIA

MAIDER ZUBIKARAI BERISTAIN

AIMAR LASA URKIRI

MIREN ELISABETH URTEAGA IÑARRA

ITZIAR IRIZAR BERISTAIN

JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN

CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE

UNAI LEKUBE ARANBERRI

IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

ANA BELEN HIDALGO CORRAL, idazkaria

### **Azaldu ez diren zinegotzi hautatuak:**

### **Bertaratzeak eta irteerak**

### **Gora-beherak**



## DEBAko UDALA

### **Aztergaiak:**

1. Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/04/28).
2. Tokian tokiko jai eguna proposatzea.
3. 2016ko 2. seihilabeterako zaborren tasa aldatzeko proposamena. Hasierako onespena.
4. Mozioa. EH Bilduk aurkeztua: ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa.
5. 2016ko 1º kreditu aldaketaren berri ematea.
6. Debako Udaleko 2015eko kitapenaren berri ematea.
7. Debako Musikaleko 2015eko kitapenaren berri ematea.
8. Arte Eskolako 2015eko kitapenaren berri ematea.
9. Alkatetza Dekretuen berri ematea.
10. Eskariak eta galderak.

### **Urgentziazko deklarazioa:**

Ondoren zehazten den gaia ez da bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai honi buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaia urgentea deklaratzeko erabakia aho batez hartu du Udalbatzarrak.

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 83.artikulua.

Aimar Lasa zinegotziak esan du, hurrengo baten egokia izan daitekeela Bozaramaileen Batzarra deitzea eta testu bateratu bat adosten saiatzea.

- 1.- Mozioa. Debarren ahotsak aurkeztua: ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa.



DEBAko UDALA

## Esan-eginak eta erabakiak

### 1.- Aurreko akta irakurri eta hala badagokio, onestea. (2016/04/28)

2016ko apirilaren 28ko ohiko bilkuraren akta bozkatu egin da eta aho batez onartu da, Udalbatza osatzen duten legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla.

### 2.- Tokian tokiko jai eguna proposatzea.

#### *Aurrekariak*

2016ko maiatzaren 13ko EHAOn argitaratu zen 71/2016 Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2017rako jaiegunen egutegia onartzeko dena.

Aipatu Dekretuak xedatzen duenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 2017an, urteko igande guztiak eta bertan zehazten diren 12 jaiegunez gain (urtarrilaren 1a, Urteberri-eguna; urtarrilaren 6a, Errege-eguna; apirilaren 13a, Ostegun Santua; apirilaren 14a, Ostiral Santua; apirilaren 17a, Pazko-astelehena; maiatzaren 1<sup>a</sup>, uztailearen 25a, Santiago apostolua; abuztuaren 15a, Andra Mariaren Jasokundea; urriaren 12a, jai nazionala; azaroaren 1a, Santu guztien eguna; abenduaren 6a, Konstituzioaren eguna; abenduaren 8a, Sorkundez Garbiaren eguna; eta abenduaren 25a, Eguberri-eguna), udal bakoitzeko udalbatzak proposatuta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako lurralde-ordezkariek ezarriko dituzten tokian tokiko bi jaiegun ere, lanerako baliogabeak, ordainduak eta berreskuraezinak izango dira. Bi egun horiek Lurralde Historiko bakoitzeko udalerrri guztietan berak izan ahalko dira edo ez.

Udalek beren proposamena egiteko eta dagokien lurralde ordezkaritzara bidaltzeko hilabeteko epea dute dekretua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

#### *Erabakia.*

Aurrekarien berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez hartu du erabakia, legezko hamahiru zinegotziak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Abuztuaren 16<sup>a</sup>, San Roke, 2017ko tokian tokiko jai eguna zehaztea.

**Bigarrena.-** Erabaki hau Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako lurralde-ordezkaritzari jakinaraztea.



## DEBAko UDALA

### 3.- 2016ko 2. seihilabeterako zaborren tasa aldatzeko proposamena. Hasierako onespena.

#### *Ondasun eta Kontuen Batzorde bereziaren proposamena*

Proposamena da zaborren tasa %12,47 igotzea 2016ko 2. seihilabetetik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioaren tarifa igoera dela eta.

2016ko 2. seihilabeterako zabor tasaren zenbatekoa honako hau izando da:

ZABORRAREN TASA						
2016						
1.	2.	3.	4.			
HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	IGOERA %12,47	IGOERA %12,47	
					GUZTIRA 2016	<b>2017</b>
ETXEBIZITZAKO	36,57	36,57	41,13	41,13	155,40	<b>164,52</b>
TABERNA,KAFETEGI..	205,56	205,56	231,19	231,19	873,51	<b>924,77</b>
HOTEL,FONDA,JATETXE...	205,56	205,56	231,19	231,19	873,51	<b>924,77</b>
MERKATALTEGIAK	106,89	106,89	120,22	120,22	454,22	<b>480,88</b>
SOZIEDADEAK 5 BAZKIDE	91,46	91,46	102,87	102,87	388,65	<b>411,46</b>
SOZIEDADEAK 25 BAZKIDE	193,05	193,05	217,12	217,12	820,35	<b>868,49</b>
BANKETXEAK	205,6	205,6	231,24	231,24	873,68	<b>924,95</b>
INDUSTRIATEGIAK MOBIMEN- DUKO	98,27	98,27	110,52	110,52	417,59	<b>442,10</b>
5 LANGILE BITARTEAN	135,2	135,2	152,06	152,06	574,52	<b>608,24</b>
6TIK 15 LANGILE BITARTEAN	196,47	196,47	220,97	220,97	834,88	<b>883,88</b>
16TIK 50 LANGILE BITAR- TEAN	331,01	331,01	372,29	372,29	1.406,59	<b>1.489,15</b>
51TIK 75 LANGILE BITAR- TEAN	442,47	442,47	497,65	497,65	1.880,23	<b>1.990,58</b>
75 LANGILETIK AURRERA	596,48	596,48	670,86	670,86	2.534,68	<b>2.683,44</b>

#### *Txostena*

Idazkariak ordenantza fiskalak aldatzeko jarraitu beharreko prozeduraren azalpena eman du: Udalbatzarrak tributuen ordenantza fiskalen onespenari eta aldaketei buruz hartutako behin-behineko erabakiak Udaletxeko iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Horrela dio uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituenak, 16. artikuluan.

Hogeita hamar eguneko epean interesatuek alegazioak aurkezteko aukera izango dute. Jendaurreko informazioaren emaitzak ikusirik, alegaziorik ez baldin badago, behin-behineko



## DEBAko UDALA

erabakia behin-betiko bihurtuko da. Jarraian, ordenantzen aldaketak osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko dira.

Udalbatzarraren erabakiari buruz, Idazkariak zera informatu du: ordenantza fiskalen aldaketak gehiengo soilaren aldeko botoa beharko du.

### ***Iritziak eta galde erantzunak***

Maider Zubikarai zinegotziak esan du, beraiek ezetz bozkatuko dutela eta horren arrazoiak eman ditu. Azpimarratu du, Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren diktamenean jasotzen dela “bileran proposamena onartu zela” baina, bi batzordekide egon zirela eta berak ezezko botoa eman zuela eta hori ez dela islatu aktan. Gaineratu du, proposamen honen oinarrian errausgailu bat dagoela eta neurri hauen atzetik politika eta arrazoi jakin batzuk egoten direla. Esan du, badagoela aukera tasak igo gabe remanentetik ordaintzeko.

Alkateak erantzun dio, tasa igoera Mankomunitateak proposatu duela eta igoeraren arrazoiak dela dagoen defizitari aurre egitea. Bera ez da sartuko defizit horren zergatietan. Zor bat dago eta zorra ordaindu egin behar da edo tasa igoeren bidez edo aurrekontuko beste edozein partida baten bitartez. Bost euroko igoera da familiako eta eskualdeko herriek erabaki dute guztiek neurri bera hartzea eta tasen igoera bidez estaltzea defizita.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

### BOZKETA

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>13</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>8</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BENGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotza taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>5</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b>	<b>0</b>
◇ <b>Emaitza:</b> UDAL PROPOSAMENA ONARTZEA	

### ***Erabakia.***

Finantza, Ondasun eta Kontuen batzorde bereziaren proposamenaren berri eduki ondoren Udalbatzarrak, legezko hamahiru kideak bilkuran direla erabakia hartu du, bozketan adierazitako gehiengoarekin:

**Lehenengo.- Onartzea Udal honetako 2016ko 2. seihilabetetik aurrera eragina edukitzeko zabor-tasaren aldaketa laburpen honen arabera:**



## DEBAko UDALA

### ZABORRAREN TA- SAK

2016

	1.	2.	3.	4.	GUZTIRA	2017
	HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	HIRUHILABETEA	2016	
			IGOERA %12,47	IGOERA %12,47		
ETXEBIZITZAKO	36,57	36,57	41,13	41,13	155,40	<b>164,52</b>
TABERNA,KAFETEGI..	205,56	205,56	231,19	231,19	873,51	<b>924,77</b>
HOTEL,FONDA,JATETXE...	205,56	205,56	231,19	231,19	873,51	<b>924,77</b>
MERKATALTEGIAK	106,89	106,89	120,22	120,22	454,22	<b>480,88</b>
SOZIEDADEAK 5 BAZKIDE	91,46	91,46	102,87	102,87	388,65	<b>411,46</b>
SOZIEDADEAK 25 BAZKIDE	193,05	193,05	217,12	217,12	820,35	<b>868,49</b>
BANKETXEAK	205,6	205,6	231,24	231,24	873,68	<b>924,95</b>
INDUSTRIATEGIAK MOBIMEN- DUKO	98,27	98,27	110,52	110,52	417,59	<b>442,10</b>
5 LANGILE BITARTEAN	135,2	135,2	152,06	152,06	574,52	<b>608,24</b>
6TIK 15 LANGILE BITARTEAN	196,47	196,47	220,97	220,97	834,88	<b>883,88</b>
16TIK 50 LANGILE BITAR- TEAN	331,01	331,01	372,29	372,29	1.406,59	<b>1.489,15</b>
51TIK 75 LANGILE BITAR- TEAN	442,47	442,47	497,65	497,65	1.880,23	<b>1.990,58</b>
75 LANGILETIK AURRERA	596,48	596,48	670,86	670,86	2.534,68	<b>2.683,44</b>

**Bigarrena.-** Hartutako erabakia eta horretarako hasitako espedientea jendaurrean ipintzen da uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 16.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Gipuzkoako Herri Ogasunen Arautzaila, lehen aitaturako artikulua 2. puntuak agintzen duen eran:

a) *Ikusgai dagoen lekua:* Udaletxe honetako Kontu-hartzailatzan.

b) *Aztertu eta erreklamazioak egiteko epea:* 30 lanegun behin iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik, bulego orduetan.

c) *Erreklamatu dezaketenak:* Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. Artikuluan adierazten direnak.

d) *Aurkezteko bulegoa:* Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Halaber, Herri Administrazioen Araubidearen eta Administrazio Jardunbidearen Legeak 38. Artikuluan aipatzen dituen lekuetan.

e) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa:* Udaltzarra.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauko epean inork ez balu egingo, erabakiak behin-betikotzat hartuko lirakeko akordio berririk hartzen ibili gabe.

#### **4.- Mozioa. EH Bilduk aurkeztua: ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa.**

Aimar Lasa zinegotziak mozioaren testua irakurri egin du.



## DEBAko UDALA

### *Iritziak eta galde erantzunak*

Alkateak esan du, beraiek ezezko botoa emango dutela beraien mozioa aurkeztu dutelako.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, beraiek kontra bozkatuko dutela nahiz eta mozioaren puntu askorekin bat etorri, zabor kopurua gutxitu egin beharko litzatekeela, berrerabilpenaren alde egin beharko litzatekeela... baina beraiek alderdi bezala erraustegiaren alde daude, nahiz eta onena izango litzatekeen erraustegiaren beharrik ez egotea.

Bozketa arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau jaso dela informatu du:

#### BOZKETA

◇ <b>Bozketan parte hartu duten zinegotziak:</b> .....	<b>13</b>
◇ <b>Aldeko botoak:</b> .....	<b>5</b>
<b>Aldeko boto-emaileak:</b> MAIDER ZUBICARAY, AIMAR LASA, ITZIAR IRIZAR, JOSE LUIS ALBIZU, MIREN ELISABETH URTEAGA, EH Bilduko zinegotziak.	
◇ <b>Aurkako botoak:</b> .....	<b>8</b>
◇ <b>Aurkako boto-emaileak:</b> PEDRO M <sup>a</sup> BONGOETXEA, AITOR SALEGI, ANE MIREN EGUIDAZU, M <sup>a</sup> LUISA ALBIZU, IÑAKI ESNAOLA, Debarren Ahotsa taldeko Alkate eta zinegotziak.	
◇ CRISTOBAL DEL CORTE, IÑIGO CAMBRONERO, UNAI LEKUBE, EAJ-PNVko zinegotziak.	
◇ <b>Abstentzioak:</b>	<b>0</b>
◇ <b>Emaitza:</b> MOZIOA EZ ONARTZEA	

### *Erabakia.*

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak, legezko hamahiru kideak bilkuran direla, mozioa ez du onartu bozketan jasotako emaitzarekin:

**Lehenengo.-** EH Bilduk aurkertutako mozia “ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa” ez onartzea.

### *Urgentziazko deklarazioa:*

Ondoren zehazten den gaia ez da bilera-deian legezko epean sartu. Halaber, Udalbatzarrak erabaki du gai honi buruzko ebazpena gaurko bileran hartzea, urgentea dela deklaratu baitu. Gaia urgentea deklaratzeko erabakia aho batez hartu du Udalbatzarrak.



## DEBAko UDALA

Hori guztia ondorengo lege eta erregelamenduen arabera egin da: apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartutako Testu Bateratuaren 51. artikulua eta azaroaren 28ko Errege Dekretu bidez onartutako Udalbatzen Antolaketa, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duen Erregelamenduko 83.artikulua.

### **1.- Mozioa. Debarren ahotsak aurkeztua: ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa.**

Alkateak mozioaren testua irakurri egin du.

#### *Iritziak eta galde erantzunak*

Aimar Lasa zinegotziak esan du, beraiek baietz bozkatuko dutela, testuan jasotakoak aurreko legegintzaldiko konpromisoak baitira. Azpimarratu du, mozioaren izenburua “ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofia” bateraezina dela errausketarekin.

Cristobal del Corte zinegotziak esan du, beraiek baietz bozkatuko dutela beraien helburuak horiek baitira eta interpretazio desberdinak badaude ere beraiek zero zaborraren alde daudela.

#### *Erabakia.*

Mozioaren berri eduki ondoren, Udalbatzarrak aho batez onartu du mozioa, legezko hamahiru kideak bilkuran direla:

**Lehenengo.-** Debarren ahotsak aurkeztutako mozia “ekonomia zirkularra eta zero zabor filosofiari buruzko udal konpromisoa” onartzea:

Lanean hasteko garaia iritsi denez eta herriko eragile guztien arteko elkarlana bultzatzeko asmoz hiru helburu proposatzen ditugu:

1.·Herritar, elkarte, enpresa, erakunde publiko eta etxe guztien partaidetza eraginkorra lortzea


2.·Gaur egungo birziklapen maila %30etik (azkenengo urteetan aldaketarik gabe) 0/070era handiatzea (beste udalerrri batzuetan dagoeneko lortutakoa).

3.- Hondakin gutxiago sortzea

Hau guztia lortzeko ondorengo ekintzak martxan jartzeko konpromisoa hartzen dugu:

- Hondakinen bilketa selektiboak duen garrantziaz jabetzeko herritarrei





## DEBAko UDALA

zuzendutako sentsibilizazio ekintzak antolatuko ditugu.

- Ingurumen sentsibilizazioa sustatzeko giza eragileei zuzendutako komunikazio ekintzak prestatuko ditugu.
- Gaiari esperientzia duten hezitzaile adituen hitzaldi informatiboak antolatuko ditugu.
- Beharrezkoak diren bitartekoak ipiniko ditugu hondakinen bilketa selektiboa errazteko eta egiten dela ziurtatzeko.
- Komunikazio kanpaina baten bidez hondakinen bilketa selektiboan lortzen diren emaitzen berri emateko konpromisoa hartzen dugu.

### **5.- 2016ko 1º kreditu aldaketaren berri ematea. Kreditu gehigarrien modalitatea.**

#### *Txostena*

Alkatearen proposamenean jasotako gastu berri edota handiagoei aurre egiteko ez dago behar hainbat kreditu aurtengo aurrekontuan.


Hori hala izanik, proposatutako ordainketa kredituen sorkuntza edo gehikuntza formalizatzeko bidea kreditu aldaketen espedientea tramitatzea da, kreditu gehigarrien modalitatean, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan agintzen duenaren arabera.

Kreditu gehigarriak kapital eragiketei badagozkie, besteak beste kreditu eragiketetara jo ahal izango da haiek finantzatzeko.

Kreditu gehigarriak finantzatzeko proposatu diren baliabideak bat datoz aipatutako xedapenak aurreikusitakoekin. Gainera, proposatutako finantzaketaren kopurua nahikoa da kreditu gehigarriak oso-osorik finantzatzeko.

Proposatutako gastu berri edota handiagoen premia behar bezala egiaztatuta dago, alkatearen proposamenean espresuki jasota geratu baita, eta zerbitzuetako aurrekarietatik eta haiei buruzko gainerako kontabilitate datuetatik hala ondorioztatzen baita.

Aipatutako Foru Arauaren 34.3. artikulua arabera, kreditu gehigarrien modalitatean egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onartzeko eskumena berez udalbatzari dagokio. Hala ere, artikulua berean aurreikusitako salbuespenaren arabera, **kasu honetan espedientearen**



## DEBAko UDALA

onarpena alkateari dagokio, ekitaldiko kreditu gehigarrien zenbatekoak ez duelako gainditzen aurrekontuaren %5a, eta aurrekontuaren exekuziorako udal arauak hala jasotzen duelako. Gainera, espediente honi ez zaizkio aplikagarriak aurrekontua onartzeko ezarritako informazio, erreklamazio, publizitate eta errekurtsioei buruzko tramiteak, eta ez zaio espedientearen kopia Gipuzkoako Foru Aldundiari igorri behar.

Hori guztia kontuan izanik, aditzera ematen dut aztertutako espedienteak bete egiten duela legez ezarritakoa.

### **KREDITU GEHIGARRIAK**

<b>Kapituluak</b>	<b>Gastuen egoera</b>	<b>Gehikuntzak</b>
6	INBERTSIO ERREALAK-Praileaitz-Pobreaitz inguruaren egokitzapena	218.989
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>218.989€</b>

### **FINANTZAKETA**

<b>Kapituluak</b>	<b>Erabilitako baliabideak</b>	<b>Zenbatekoa</b>
7	EUSKO JAURLARITZA-DIRULAGUNTZA	98.607
8	ALTXORTEGIKO GERAKINA	120.382
<b>GUZTIRA</b>		<b>218.989€</b>

**Udalbatzarra jakinaren ganean geratu da.**

#### **6.- Debako Udaleko 2015eko kitapenaren berri ematea.**

Udalbatzarra jakinaren ganean geratu da.

#### **7.- Debako Musikaleko 2015eko kitapenaren berri ematea.**


Udalbatzarra jakinaren ganean geratu da.

#### **8.- Arte Eskolako 2015eko kitapenaren berri ematea.**

Udalbatzarra jakinaren ganean geratu da.

#### **9.-Alkatetza Dekretuen berri ematea.**

Idazkariak informatu du ondorengo Dekretu hauek eman dituela Alkateak:



## DEBAko UDALA

26	2016/04/25	Administrari laguntzaileen lan poltsaren osaera	2015SEBT0001
27	2016/04/29	OTA zaindariaren kontratazioa: Maiatzaren 1	
28	2016/05/05	Eguneko Zentroko langile baten lan baimena ordezkatzeko kontratazioa: Maiatzaren 5	
29	2016/05/06	OTA zaindariaren kontratazioa: Maiatzaren 7 eta 8	
30	2016/05/12	Eguneko Zentroko langile baten lan baimena ordezkatzeko kontratazioa: Maiatzaren 13	
31	2016/05/13	OTA zaindariaren kontratazioa: Maiatzaren 14 eta 15	
32	2016/05/13	La Lubina elkarteari baimena ematea basatxori kantarien lehiaketa egiteko	2016ALES0004
33	2016/05/16	Iturri ondoan programarentzat 19.000€ko gastua onartzea	
34	2016/05/16	Elhuyarri ekolingua zerbitzua esleitzea, 3.630 €an. Materialerako 370 €ko gastua baimentzea	
35	2016/05/20	OTA zaindariaren kontratazioa: Maiatzaren 21 eta 22	

Udalbatzarra jakinaren gainean gelditu da.

### 10.- Eskariak eta galderak.

Maidar Zubikarai zinegotziak aurreko Udalbatzarraren saioan informazioa eskatu zuen Debegesan egondako langile-kaleratzeen inguruan eta Alkateari galdetu dio ea horren inguruan berririk ote daukan eta galdetu du ea langileekin egon ote diren.

Alkateak esan dio, gerentziako erabakia izan dela eta dirulaguntzak eskuratzeko lege aldaketa baten daukatela oinarria kaleratze horiek. Kaleratutako langileek jasotako kalteordaina legeak ezartzen duena baino altuagoa izan omen da.

Maidar Zubikarai zinegotziak, udal aldizkariaren inguruan esan du, beraiek aldizkaria kaleratu aurretik gainerako zinegotziekin elkartu egiten zirela eta edukia adostu. Gaineratu du bi akats daudela aldizkarian, bata, zaborren inguruan eta pddle txapelketaren inguruan bestea.


Itziar Irizar zinegotziak alkateari esan dio, administrari laguntzaileen lan poltsa eratuta dagoela eta Itziarko harrera bulegoan egunero zerbitzua emateko zain daudela.

Alkateak erantzun dio hitzarmena negoziatzeko zain daudela.

Itziarrek erantzun dio, Udaletxeko plantillako langilearen eginkizunetan aurreikusita dagoela lan jardunaldiaren erdia Itziarren ematea.

Horren harira Alkateak erantzun du, aurreikusitakoa dela lan jardunaldiaren erdia Itziarren ematea baina liburuzain eginkizunetan.

Aimar Lasa zinegotziak informazioa eskatu du erre den tallerraren inguruan, isuririk egon ote den eta Udalaren aldetik zer egin den.



## DEBAko UDALA

Alkateak erantzun dio, Udalak laguntza eskaini diela eta Udal teknikarien zerbitzuak eskaini zaizkiela. Bera langileekin eta nagusiarekin egon dela. Uraren kutsadurarik ez dela egon baina tailerra oso kaltetua dagoela eta aseguru etxeen esku dagoela gaia.

Besterik gabe, Alkate-Udalburuak amaitutzat eman du bilera, eta, eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egin dut.

Deban, 2016ko maiatzaren 26an

**IDAZKARIA**

